EDITORIALA

## El Cesid y la Ertzaintza

Un asesor técnico del Cesid y testigo del atentado registrado en la cafetería Basque del Hotel Alcalá en 1989 aparece, según investigaciones realizadas por este periódico, como uno de los principales suministradores de la tecnología más avanzada en materia de espionaje de la Policía autonómica que dirige Juan María Atutxa. Este suministrador, en virtud de pertenecer al servicio de inteligencia del Estado español y de que posee todos los códigos de protocolo del material que la Consejería de Interior adquiere, paralelamente también pone a disposición del Cesid todos sus conocimentos sobre el material comprado por el Gobierno de Lakua.

Esta doble función del suministrador no es óbice para que los más significados agentes de los servicios especiales de la Ertzaintza, la cúpula anti-ETA, mantengan con él frecuentes reuniones que subrayan las excelentes relaciones que entre el Cesid y la Ertzaintza ya se pusieron de manifiesto cuando la Consejería de Interior se negó por activa y pasiva a facilitar al juez Justo Rodríguez la identidad del oficial del Cesid atrapado*infraganti* cuando manipulaba en el interior del vehículo del parlamentario y *mahaikide* José María Olarra. Relaciones a prueba de cualquier contratiempo que resistieron incluso la identificación del citado individuo gracias a una filtración realizada desde la propia Ertzaintza. Unas buenas relaciones que fueron evidenciadas por el consejero Atutxa quien llegó incluso a negar la existencia de un vídeo donde estaban recogidas la persecución y detención de aquel agente del Cesid que fue puesto en libertad con el mayor de los sigilos.

Razón tenía Xabier Arzalluz cuando meses atrás, y en un tono de denuncia que desde aquí no vamos a desdeñar, afirmaba que el Cesid se había infiltrado en las filas de la Policía autonómica vasca. Tenía razón el *burukide* del PNV y quizás por ello mismo se corrió de prisa y corriendo una cortina de silencio. Una cortina que no sólo sirvió para ocultar el hecho en sí que a Arzalluz molestaba, sino que tapaba también algo más grave y profundo y que apuntaría a que el señor consejero de Interior se le escapa de las manos y hace, como buen indisciplinado militante, de su capa un sayo.

egin

HOY ESCRIBE

# Irtenbide bila

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / Idazlea

Orain dela urte mordo bat, 1961ean, Parisa ihesi azaldu nintzen garaian, deserriturik bizi zen jende asko ezagutu nuen. 1936ko gerra egindakoak ziren zaharrenak. Gu, abertzale gazteok, gazte... orduan! Eta, tartean, deserrian heldutakoak zeuden.

Hauen arteko katalan bati Josep Pallach zeritzon. Parisen bizi zen, eta "Endavant" izeneko aldizkaria argitaratzen zuen ("Moviment Socialista de Catalunya" zelakoaren izenean). Hura ere, gu bezala, ezker abertzalearen bila lanean. Eta harreman onak izan genituen haseratik.

Eta hari entzun nion batzutan ideia hau: *«En política estar de acuerdo, es estar de acuerdo en el 51% de los problemas».* Hura... katalana!

Euskaldunon artean, berriz, osoki fededunak garelako, beste hau esan behar bide genuke: «Politika alorrean batera joateko, %99 arazotan egon behar da ados. Bestela... koartelik gabeko gerla osoa!». Eta ondorioak hor daude.

> Programa minimoa ongi biltzen du "Alternativa Democrática" deritzon hautu politikoak

Etsaiak (eta espainiarrek bereziki) ez dute horrela jokatzen. Une honetan, esate baterako, erabat baturik jokatzen dute denek: PP, PSOE, IU... gure kontra. Guk ez. Guk beti aurkitzen ditugu elkar gorrotatzeko eta hiltzeko arrazoinak. Integristak gara.

Gaur egun, adibidez, eta aurrean duguna ikusiz, eta geure ahulezia ezagututa (eta, barka, euskararen egoera da gure nazio-kinkaren neurri egokia), ardatzean behar genuke elkartu; gainerako diferentziak, %5, %10, are %37 agian, biharko utziz.

Gure herria desagertzeko zorian jarri duena, franko-espainiar inperialismoa da; bertako Atutxen eta Del Burgo ugarien laguntza lotsagarriaz. Beste gauza askok kolpatzen dute gure herria. Bai. Baina gure herria mapatik desagerrarazi nahi duena, kanpotar inperialismoa da. Txetxeniaren kasoan bezala.

Herri hau hiltzera kondenatzen duen sistema, hitz batez, naziogabetzen gaituen legetasun franko-espainiarra da. Sistema horren barruan borroka egiten duten indarrek, guztiek, hiltzen gaituen mailua gotortu besterik ez dute egiten. Eta hau geronek baino aisa garbikiago ulertzen dute Parisek eta Madrilek.

Sistema politiko bikoitz hori indartzea ala ahultzea: *«that is the question».* Euskadiko Ezkerraren eboluzioan dugu frogarik ezagunena. Legetasunaren barruan egin nahi omen zuten Iraultza, eta gaur egun PPren morroi leial bihurtu dira.

Horregatik benetako berez-lerroa gaur, Auto-Determinazioaren alde egon; ala Auto-Determinazioaren kontra egotea. Eta hau, jakina, praxi politikoaren arabera. Hitzak... haize aldakorra! Eta areago hogei urte honetan muinetaraino usteldu den espainiar sisteman.

Hots, gure Auto-Determinazioa bideratzerakoan, ezin irmoago eta batuago agertzen zaigu etsaiaren blokea. Eta «abertzale» eta «iraultzaile» omen diren taldeak eta alderdiak, horretan banatzen dira. Praxi politikoak (eta kobratzen diren soldatek!) ezin nabarmenago erakusten duenez, batzuk (legezaleak) Sistemaren alde daude; eta beste batzuk (legetik at eta gartzeletako bezero agertzen direnak), Sistemaren kontra. Noski!

Garaia da Auto-Determinazioaren alde borroka egiten dutenengan geure lankideak ikusteko; eta Auto-Determinazioa oztopatzen eta trabatzen duten guztiengan, etsaiaren aliatu fidelak ikusteko.

Programa minimo hori, eta borroka egiten dutenen multzoaren ardatza eta oinarria, ongi biltzen ditu "Alternativa Democrática" deritzon hautu politikoak. Hor, behar dugun gutxienezko Programa azaltzen da. Integristek, berriz, %99 mailako berdintasunean eraiki nahi lukete gure multzoa.

"Alternativa Democrática" izeneko Plataformak, zentzuz, ehuneko maila apalagoan bilatu du elkargunea. Bazen garaia! Gerokoak gero.




Horregatik, asko eta asko, Donostiara joango gara datorren 26an, ADren inguruko Hautu Demokratiko horren aldeko geure jarrera, lotsarik gabe agertzera.

